

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Oposaketak eta lehiaketak

#### LEHENDAKARITZA

## 1629

*EBAZPENA, 2018ko martxoaren 15ekoa, Lehendakaritzako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez bete gabe uzten baita sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa.*

Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearen 46.2 artikuluan agindutakoarekin bat etorriz, eta sail honetan hutsik dagoen lanpostu bat izendapen askez betetzeko deialdi publikoa iragarritz, Lehendakaritzako idazkari nagusiaren 2018ko otsailaren 7ko Ebazpenaren hirugarren oinarrian (otsailaren 16ko EHAA, 34. zk.) eta bere huts- zuzenketan (otsailaren 22ko EHAA, 38. zk.) ezarritakoaren arabera, honako hau

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bete gabe uztea Zerbitzu Zuzendaritzako telefonista lanpostu bat (DE/taldea, 16. maila, 520203 kodea, 3. dotazioa).

Bigarrena.– Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, aukerako berraztertze-errekurtsoa jar dakiok ebazpena eman duen organoari, hilabeteko epean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar daiteke Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko martxoaren 15a.

Lehendakaritzako idazkari nagusia,  
JESÚS MARÍA PEÑA MARTÍNEZ.